



IRAKASLEOK PALESTINAREKIN BIGARREN HEZKUNTZARAKO UD-A AURKEZTEN DU PALESTINAKO GENOZIDIOARI BURUZ, GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALAREN 77. URTEURRENEAN

- *Ikastetxe guztiak animatzen ditu, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira, lan pedagogikoa **Palestinako herriak pairatzen duen egoera oso larrian** oinarritu dezaten, egunero erasoak sufritzen ari baita su-eten “faltsu” honetan*
- *Irakaslegoari eskatzen dio **genozidioaren kontra astero egien diren konzentrazioak asteazkenera aurreratu ditzaten** salaketa publikoa indartzearen*
- *Kritikatzen du **Hezkuntza Departamentuak oraindik ez diola erantzun** ehundaka irakaslek egindako eskaerari **grebarengatik kendutako soldata UNRWari** eman diezaion Gazako eskolak berreraikitzeke*

[Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren](#) 77. urteurrenaren atarian, Irakasleok Palestinarekin taldeak **ezin dio utzi Palestinako gatazkaz hitz egiteari**, ezta zigorgabetasun osoz Israelek gauzatzen duen **genozidioaren aurka mobilizazio eta salaketa jarrera aktiboa hartzeari ere**, ustezko su etenak ez baititu Gazan, Zisjordanian eta Jerusalem Ekialdean okupatzailearen erailketak eta eraso sistematikoak eten.

Duela hiru aste, azaroaren 20an, Haurtzaroaren Eskubideen Nazioarteko Eguna zela eta Haur eta Lehen Hezkuntzari zuzendutako unitate didaktikoa aurkeztu genuen, ikasgeletan **elkartasuna, justizia soziala eta giza eskubideen defentsa** lantzeko asmoz. Oraingoan, eta lan ildo honekin jarraituz, bihar asteazkena, abenduaren 10a, Giza Eskubideen Nazioarteko eguna ospatzen dela kontutan hartuz, **bigarren unitate didaktikoa** aurkeztu dugu, eta oraingoan Bigarren Hezkuntzari (DBH eta Batxilergoa) eta Lanbide Heziketari (LH) zuzenduta dago.

Unitate didaktiko hau nahi duten ikastetxe guztiek eskuragarri izanen dute bihartik aurrera, bai Nafarroakoekin zein Euskal Herriko eta estatuko gainontzeko herrialdeetakoekin ere. Era honetan, irakaslegoak eskura izanen ditu giza eskubideen nazioarteko aldarrikapena lantzeko materialak, Palestinaren kontra gauzatzen ari den genozidioan oinarritutakoak.

ABOTSA EMAN ETA MOBILIZATU

Bi unitate didaktiko hauek Palestinako kausari **abotsa ematea** eta Israelek zigorgabetasun ulertezin osoz aurrera daraman genozidioaren aurrean **hezkuntza komunitatea mobilizatzea** dute helburu. Giza ondorio eta ondorio historikoak baitakartza, eta hauen aurrean hezkuntzak **ezin du neutrala izan, ezta ixilik egon ere**.

Unitate didaktiko hauek, eta gure lankideak material hauek gelako programazioan txertatzeko animatzeko talde honetako hainbat kidek egindako bideo bat, **korreo elektronikoz** eta Irakasleok Palestinarekin taldearen [site kolektiboaren](#) bitartez zabalduko dira.

DBH, BATXILERGOA ETA LH-RI ZUZENDUTAKO UD-REN EDUKIA

- **Nori dado zuzenduta:**

14 urte baino gehiagoko ikasleei (DBH 3. eta 4. mailak), Batxilergoa eta Lanbide Heziketa (LH).

- **Legedia:** 3/2020 LOMLOE, 58/2008 Foru Dekretua, 71/2022 Foru Dekretua, 72/2022 Foru Dekretua.

- **Landuko diren balio orokorrak:** elkartasuna, justizia soziala, giza eskubideen defentsa eta herrien eskubideen defentsa. **Helburua** da ikasleengan enpatia eta gaitasun kritikoa sustatzea eta bere ekintzen bitartez errealitatea eraldatzeko gaitasunaz kontzientzia hartzea.



□ Helburuak

- Giza eskubideak, orokorrean, ikasleei ezagutaraztea, bereziki palestinar biztanleriarenak, Israelgo estatuak ezarritako eskubide-urraketa sistematikoaren menpe baitago.
- Hezkuntza komunitatean elkartasuna sustatzeko ekimen hezitzaile eta kulturalak bultzatzea.
- Erakunde publikoek bere nazioarteko harremanetan duten erantzukizunaren aurrean eta giza eskubideen urraketa larrietan parte hartzen duten eragileekin konplizitatea sahisteko sentsibilizazioa bultzatzea.

☐ Landuko diren edukiak

- Palestinaren testuinguru geografiko, historiko, politiko eta soziala aztertzea.
- Gakoa diren kontzeptuak ikastea: sionismoa, kolonialismoa, autodeterminazio eskubidea eta genozidioa.
- Giza eskubideen ulermena eta haien urraketa gatazka testuinguruetan, Palestinaren kasuaren azterketa aintzat hartuta.

☐ Metodologia

- Talde lan kolaboratiboa.
- Ikasleen partehartze aktiboa eta kritikoa, justizia soziala, giza eskubideen urraketaren eta nazioarteko komunitatearen erantzukizunaren inguruko eztabaidetan.

SEKUENTZIAZIO DIDAKTIKOAREN LABURPENA

Unitate didaktikoaren helburua bideo-dokumental partehartzailea eratzea izango da, non Palestinako gatazka ulertzeko beharrezkoak diren gako ezberdinak islatuko diren. Horretarako, ikasleak talde lanetan jartzea proposatzen da, eta, ikerketa proiektu baten bitartez, dokumental horren zati bat sortzea.

Talde bakoitzak hurrengo gai-gako hauek landuko ditu: **inperialismoa eta kolonialismoa, genozidioa eta holokaustoa, Israelgo estatuaren sorrera prozesua, herrien autodeterminazio eskubidea, herri palestinarraren erresistentziak eta elkartasun mugimenduak.**

Era honetan, amaiera produktuak (bideo dokumental horrek) gelan landu nahi den gatazka ikuspuntu ezberdinetatik kontatuko du. Bukatutakoan, saio bat erabiliko da landutako alderdien inguruan eztabaidatzeko.

- Azkenik, proposatzen da UDa bukatzean lanak egin diren ikastetxearen inguruko **Kultur Etxean edo Civivoxean jaialdi bat** ospatzea, non talde bakoitzaren emaitzak proiektatuko diren.

☐ Materialak eta malgutasuna

UDarekin batera, talde laneko proiektuetako gaien inguruan eta gatazka kokatu ahal izateko, irakasleeri hainbat **eranskin** eskainiko zaizkie **ikusentzunezko material eta estekekin**.

Unitate didaktiko hau malgua da eta, ikerketa prozesuetan oinarrituz, ikus-entzunezko produktuak sortzera bideratuta dago. Malgutasun horren bitartez, ahalik eta ikastetxe kopuru handienara iritsi nahi dugu.

Hala, bi proposamen planteatzen dira: bata, **6 saiotan** garatu ahal izateko, eta bestea, **12 saiotan** garatzeko. Horrela, pertsona eta ikastetxe bakoitzak gehien interesatu ahal zaiona aukeratu dezake.

Hautatutako proposamena, gainera, talde edo ikastetxe bakoitzaren beharretara egokitu daiteke eta egin daiteke:

- Moduluen bitartez (astean behin saio batean garatuta, ala saio jarraituetan)
- Tutoretza-saioetan edo irakasgai bateko saioen barruan (azken hori programazioaren baitan justifikatu daiteke giza eskubideen balioak landu behar direla argituta, hala nola berdintasuna, herritartasuna lortzeko hezkuntza etabarrak, LOMLOEn daudenak hala nola Garapen Jasangarrirako Helburuak GHJ).
- Ikastetxearen proiektu gisa (Zuzendaritza taldearekin koordinatuta, adibidez, Elkartasun Eskolak proiektuetan).

(Beheko mapa kontzeptualaren tamaina egokitu dezakezue)



